

Goi

Goierritarra aldizkaria

393 zenbakia 2011ko urtarrilak 14



**EUSKARAREN
ALDEKO
TRENA
CAF-EN**

ASIER MENDIZABAL

IDEOLOGIAK ETA FORMAK ARTEAN



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena eta
asteartea ezik. Larunbat eta igandeetan
eguerdiz ere irekita
(asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

Orain kupela gehiago

AMEBI

Jada irekita!



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Egunero 19:00etatik aurrera
Ostiraletan eta asteburuetan
eguerdietan zabalik

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA



Eneritz Gorrotxategi

Urtea hasi besterik ez dugu egin, baina dagoeneko urtarri-leko aldapa, majo nabari dugu. Beste zenbait urtetan baino gogorrago antzeman dudala esango nuke gainera. Argi indarra, gas naturala, gasolioa, butanoa, garraioak, tabakoa eta ura garestitu dira besteak beste. Hiru gipuzkoarretik batek omen du hipoteka baten soka lepoan, eta nola ez, horrek ere gora egingo du; batzaz beste 350 euro gehiago

ordaindu beharko baitira urtean, hipoteka batengatik.

Goranzko joera bera, ez dute ez soldatek. Bizi maila %2,9 igo den neurrian, soldatak apenas igo dira % 1,3.

Horri guztiari gainera, krisi madarikatuaren oinazeak gehitu behar zaizkio: gure herrietako kaleetara begiratu besterik ez dago, batere mugitzen ez den lan merkatuak eragindako langabeziaren datua zenbatekoa den ikusteko; ia guztiok dugu inguruan senide, adiskide edo ezagunen bat langabezian. Horietatik zortekoa da gainera, (hala esan beharko dugu) langabeziagatik diru-sariren bat duena. Izan ere, dagoeneko kendu dute langabezia amaitu eta bestelako diru-sarrerarik ez zuenarentzako, eskaini zuten

Zer diru izango dugu, oinarritzko premiak asetzeko behar dugun guztia garestitzen bazaigu, eta lanik ez badago?

426 euro eskaseko diru-saria.

Haurra izaten zutenentzat laguntzatxo bat ere bazen; 2.500 euro. Orain, hori ere ez. Jubilatzeke adinera gerturatzan ari denari ere, ilusioa zapuzten ari zaio; asmoa dutenek lortzen badute, gero eta denbora gehiago lan egin beharko baitu, jubilatzeke.

Poltsikoan gero eta zulo handiagoa izanda, zer nahi dute? Trukean hasi behar ote dugu? Ekonomia suspertzeke kontsumoa indartzea omen da irtenbideetako bat. Baina zer diru izango dugu, oinarritzko premiak asetzeko behar dugun guztia garestitzen bazaigu, eta lanik ez badago? Ez al dago krisian eredu ekonomikoa bera? Noiz hasi behar dute dagoen dirua egoki banatzen? Enpresa eta bankuei eman zaie jada, eta langileei?



Ion Muñoa

Ez naiz ni ekonomia kontuez aritzeko pertsonarik aipose-na; are gehiago, ezjakina ere banaizela esango nuke. Hala ere, krisi garaioan azkeneko taberna-zulo, taxi-galdu edo igogailuan ere, Realari eta eguraldiari buruzko hizketaldiek adina ematen dute ekonomia kontuek; eta ondorioz, denok edukitzen dugu noiz edo noiz langabezia, grebez, gobernuen kudeaketez, bankuez, eta antzeko arazoz hitz egin beharra. Hori dela eta, seguruena gehiegizko atrebentziaz, bi mezu nagusi eta galdera batzuk planteatu nahi nituzke (zoritzarrez nik ere ez dut galderentzat erantzun magikorik).

Uste dut bizi-mailaren eta bizi-kalitatearen arteko bereizketa zintzo eta benetakoa egin behar dugula. Gure gizartean, eta azken urteotan, kalitatea mailarekin nahasi eta ahalik eta ongien bizitzaren saiatu beharrean, ahalik eta gehienarekin bizitzera jo dugu. Ondorioa argia: bizi-maila jasangaitz eta aseezinera iritsi gara, espero genuen bizi-

Azken urteotan, ahalik eta ongien bizitzaren saiatu beharrean, ahalik eta gehienarekin bizitzera jo dugu

kalitatea lortu gabe. Horregatik gutxiagorekin hobeto bizitzera ohitu behar dugu, austeritatearen bidetik. Ohartzen al gara horrek zer esan nahi duen?

Bizi-kalitatearen bilaketa eta austeritatea. Horra nire bi mezu nagusiak. Eta horiei lotuta, norbere hausnarketan lagundu nahi duten galdera batzuk: krisiaren eraginean ez ote dugu ardurarik bigarren etxebizitzak, 30.000 euroko autoak, eta 8.000 kilometroko txangoak erosi ditugun langileok ere? Gutako bakoitzak ere ez ote du ezer egiterik egoera honen aurrean? Beti 'aita-estatuari' eskatu behar al diogu babak eltzetik ateratzeko? Enpresaburuak eta langileak txanponaren bi alde, edo auto beraren bi gupil dira? Eta, galdera hauek neoliberalista batenak dira edo 2011ri baikor ekin dion batenak?

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu
ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Senaren krisia da egungoa eta zenbat eta gehiago
debekatu, galarazi, ukatu... orduan eta senaren
falta gutxiago sumatuko dugu.



Iñaki Murua

Debekua senaren menpe!

Zer dela eta hainbeste krisia gora eta bera gure elkarrizketa ia guztietan? Akaso ez al da krisia betikoa eta betierekoa gure gizartean? Zergatik ari gara krisia bakar eta bankuek eragindakoaz? Ez al genuke ari behar, gutxienez, eragindakoez? Urtero irabaziak adieraziz orrialdeak eta orri osoak iristen zaizkigu eskuetara eta, esan beharrik ez da bankuek irabazi badute, guk edo gure modukoek falta dutelako dela, ala ez? Bai, bai, diruak diruari dei egiten omen dio eta, argi dago haiek direla dirua dutenak, beraz, dirua, dirua dagoen lekura doa berriro; baina inork esan al du gutxi daukanak gutxiago eduki nahi duela, hau da, pobreak pobreago izan nahi duenik?

Krisia ekonomikoa soilik dela nork sinestarazi digu? Ez da bada izango, benetan jabetzen garena eta min ematen diguna krisia mota hori bakarrik dela? Nik uste dut horixe dela gure krisia.

Aurtengo Gabon eta Erregeen inguruan, behin eta berriz ikusi ditut loteria tokatu zaien pertsonen euforia eta cava xahutu beharra, munduan besterik ez balitza bezala edo mundua, lau euro horiek suertatu zaien gutxi batzuk duten poz kontrolagaitz hori, beste denok ere bizi dugula uste izaterainoko algara, malko eta besarkada komunitarioak. Bai, ni ere pozten nau zuek zortedun bazarete eta bankuekiko zorrak kitatzeko lain poltsikoratu baduzue. Hori baitzen ia denek aitortzen zuten premia: "hipoteka ordainduko dut" eta "seme-alabei dituzten zorrak arintzen lagunduko diet" zioten zotinka. Hipoteka horien dirua jaso zain zegoen bankuak ba ote zuen zotinik?

Akaso bai. Batetik, bai jasoko ez jasoko zalantzan zuen mailaguen dirua berreskuratzea ziurtaturik zeukalako eta beste diru mordoxka bat gehiago sakelaratzeko ateak zabaldur zitzaizkiolako, gainera. Hara, denak pozik, motibo berarekin.

Lehenagoko baserritararena, Aizpurutxo erreka inguru horretakoak izan behar zuten bi auzotar eta, azoka egunean topo eginik, jakineko galderak egiten hasi omen ziren zer moduz hau eta hura eta...

- *Zemuz goi horitan?*

- *Ba, zesangoek, osasune badiau behintzat eta hainbesten gea-nene konforme. Lanan faltaik etzeukiau baino diruikin gaizki!*

- *Joino! Gu diruikin ondo ibiltzen gaittuk. Diruipe gaizki!*

Baina zer ari naiz zorte onekoari egun bateko barne poza eta aztoramena galarazten? Ez horixe! Disfruta dezatela ahalik eta gogotsuen eta luzaroen nork zer debekatua bada eta, ezta hala erretzaile porrokatu hori? Zu eta Su gauza bera bazinete bezala zenbiltzaten urte berrira arte ia edonon eta, 2011n, hainbat leku publikotan eta bestelakoetan, zakurrek erreserbaturik duten lekua dago zure zain. Kea dariola ibiltzekotan zoaz ttotto-aren salara! Oraintxe hasiko zara benetan *erretzen*, eta keak adieraziko digu bi *erreeta*n zeinek kiskaltzen zaituen gehien.

Ni ados nago, denon osasuna zaintzeko senak agintzen duenean, erretzea debekatzearekin. Esaterako, asma atake baten aurrean, ondoan jarri eta purua pizten duenari edo hilzor-rian dagoen agurearen zain egon behar eta dale, zigarro batekin bestea pitztuz! Edo, haur jaio berriaren bataio bazkaria eta hura besoetan duela (berdin zait bularra emateko bada ere eta haurra berak egindakoa izanda ere) zigarroari zupa eta zupa gero, haur hori bera, hamabost urte geroago juergatik etxeratzean, dakarren ke kiratsaz kexatuko den guraso zentzuduna izanda ere.

Baina, zergatik ez dira debekatzen Formula 1 eta antzerakoak? Ke horrek ez al du osasuna berdin izorratzen? Zergatik baimentzen da zigarroari brea eta beste nahastea erretzeko beharra sor diezagun? Eta alkohola? Eta gripearen aurkako ia derri-gorrezkoak diruditen txertoak? Eta merkealdiak? Zer esan nahi dute urte osoan behar baino garestiago ordaintzen dugula? Eta erakunde batzuetako aholkularien eskupekoak? Eta gure politiko-koen soldatak? Eta negozio bitartekariak? Eta dauzkagun ban-kuak? Eta ETtak?

Iruditzen zait sena falta dela/dugula. Senaren krisia da egungoa eta zenbat eta gehiago debekatu, galarazi, ukatu... orduan eta senaren falta gutxiago sumatuko dugula. Aldiz, zenbat eta gehiago saritu, bultzatu, lagundu, inplikatu, konplikatu, bustiarazi, auzolanean ezarri, konponbideak bilatzeko ariketa proposatu, sormena bideratu, adibideak jarri, korapiloa mahai-ratu, irtenbide bakarra ez eskaini, parte harrarazi, denona sentiarazi... orduan eta burujabeago, zentzudunago eta besteren debekuen premia gutxiago izango genuke. Badakit hori lantzea eta horren bila gizartea antolatzea debekua baino zailago eta deserosoagoa dela, eta zer?

Denetik (XLV)

Maizpide euskaltegia

Zerkaniasak zemuz dailtze gaur?

Izenburuko galdera xeble samarra dugula ezin ukatu, baina grebaren bat iragartzen dutenean, lagun, ohikoa izaten da horrelakorik entzutea! Bada, aurrerantzean ondo erabiliko badugu, **aldiriko trenak** esango dugu. Askok esaten duten 'ingurutren' bitxi hori ere ez da batere txukuna!

✗ Zerkaniasak ondo funtzionatu al du / dute bihar, Satur? (*desegokia*)

✗ Ingurutrenak ondo funtzionatu al du / dute bihar, Satur? (*desegokia*)

✓ Aldiriko trenak ondo ibiliko al dira bihar, Satur? (*egokia*)

Hi, Antselmo: goaïne andrekin pauaraziko dik peajea!

Ez dakigu Antselmoren andrea nola portatuko den gizonaren azken 'axioa' ren berri izatean, baina Antselmori "sententzia" bota dionak ez luke aurrerantzean **peaje** hitza euskaraz santa sekula erabili beharko, erdarakada itsusia baita! Erreparatu ondorengo adibideari, nola esan beharko genukeen jakin ezean:

✓ Hi, Antselmo, orain ere andrekin (larrutik) ordainaraziko dik egindako "axioa"! (*egokia*)

Baina behin peaje hitza aipatu dugularik, bere testuinguru "naturalean" ere beste modu batean adierazi beharko genukeela esango dugu, erdaratik jasotakoa alde batera utzita:

✗ Aizan, Lurdes, Bartzelona aldeko peaje guztiak nik ordainduko ditinat! (*desegokia*)

✓ Aizan, Lurdes, Bartzelona aldeko **bidesari** guztiak nik ordainduko ditinat! (*egokia*)

✗ Aizak, Kandido, peajera iritsitakoan esna nazak; izan ere, nik ordaindu nahi diat! (*desegokia*)

✓ Aizak, Kandido, **ordainlekura** iritsitakoan esna nazak; izan ere, nik ordaindu nahi diat! (*egokia*)

Afarie ta gero... Xantinen soziedadea jungo gaiztek! Bale?

Goierriko kaleetan maiz entzuten ditugu izenburuko bezalakoak. Esaldi txukun askoak dirudite, baina badute askotan ohar-kabeen pasatzen zaigun ajeren bat edo beste. Goiko adibidean, esaterako, denbora adierazteko erabilitako "eta gero" horrek aditzaren ondoren joan behar du, eta ez izenaren atzean!

✗ Afaria eta gero... Xantinen soziedadera joango gaituk musean aritzera! (*desegokia*)

✓ Afaldu eta gero... Xantinen elkartera joango gaituk musean aritzera! Ados? (*egokia*)

✓ Afalondoren Xantinen elkartera joango gaituk musean aritzera! Ados? (*egokia*)

✗ Bilera eta gero elkartuko gaitun, Joxepi! (*desegokia*)

✓ Bilera bukatu / egin eta gero elkartuko gaitun, Joxepi! (*egokia*)

✓ Bileraren ondoren elkartuko gaitun, Joxepi! (*egokia*)

Aurrerantzean hegazkinak aldiriko trenak bezain garaiz iritsiko dira, lagunok!



AENAKo aire-kontrolatzaileak bileratik atera eta gero!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Peajea eta gero sartuko gara "restop" horietako batean!
2. Antselmok "axioa" egin ondoren... ez zen giro izango bere etxean!

OHARRA: lehenengoa ez da, bada, oso txukuna! Ordainlekuan bidesaria ordaindu eta gero sartuko gara atseden-lekuren batean edo antzekoren bat behar du!



kutxa

Korrika 17, apirilaren 7an hasiko da Trebiñun; eta Donostian bukatuko da apirilaren 17an

‘Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!’



Bi urtean behin egiten den euskararen aldeko korrikaldirik luzeena eta jendetsuena, apirilaren 7an hasiko da Trebiñun. Bukatu berriz, apirilaren 17an, Donostian. Egun horietan, gau eta egun, herriz herri, eskuz esku, Korrika 17ren lekukoa pasatuz joango da. Goierrira, apirilaren 13an iritsiko da, Legorretatik barrena. AEK-koak burubelarri ari dira era ezberdinetako lanetan. Nekane Munduate ataundarra da Korrika 17-ren Goierriko koordinatzailea eta berak azaldu dizkigu Korrika iritsi artean egin beharreko lanak zeintzuk diren. Aurtan Korrikarekin, hitz berri bat ikasiko dugu: euskalakaria.

AEK-k 1980an lehenengo Korrika antolatu zuenetik, 16 korrika eta 30 urte igaro dira. Aurtengoa, 17.a izango da eta euskararen aldeko lasterketarik jendetsuena antolatzeko, buru belarri ari dira lanean AEK-koak.

Apirilaren 7an, Trebiñun hasiko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia. 11 egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hamazazpigarrenez, apirilaren 17an Donostiara heldu arte. 'Maitatu, ikasi, ari... euskalakari' lelopean, bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu Korrika 17k, gau eta egun gelditu gabe.

Goierriara, apirilaren 13an iritsiko da, Legorretatik barrena. Nekane Munduate ataundarra da Korrikaren Goierriko koordinatzailea. Urtarrila bukaera aldera, herrietan, Korrika batzordeak sortuko direla adierazi digu, guztia behar bezala antolatzeko.

Korrika Laguntzailea: 12 euro

Korrika antolatzeko dirua behar izaten da eta horretarako, dagoeneko jarria du martxan Korrika Laguntzailea kanpaina. 12 euro ordainduta, laguntzaile direla adierazten duen pina jasoko du Korrika Laguntzaileak eta urtarriletik aurrera Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko dien



Arropa eta osagarriak salgai

AEK-k Korrika 17ko propio sortu duen arropa eta bestelako osagarriak salgai daude dagoeneko. Materiala, Goierri, AEKren euskategietan eros daiteke, eta baita Beasaingo herri dendan (Kale Nagusia, 12) ere. Laster, internet bidez erosteko aukera ere egongo da.

Korrika Laguntzailea txartela jasoko du. Txartela erabili ahal izango den komertzioen zerrenda duen katalogoa ere eskuratuko dituzte.

AEKren euskategietan lortu daitezke Korrika Laguntzaile txartelak.

www.korrika.org webgunean, Korrikari buruzko

informazio zehatza dago. Goierriko informazio zehatza goa Goiztiri AEK-ren blogean aurkitu daiteke: goiztiri.blogspot.com/.

Euskalaklip lehiaketa

Apirilan hasiko den Korrika Kulturala 17ren barruan, ikus-entzunezkoen sorkuntzari lekua egin nahi izan dio Korrikak. Gaur egun, edozein adin tarteko jendeak, bereziki gazteek, ikus-entzunezko baliabideekiko duten hurbiltasuna kontuan edukita, Korrika Kulturalaren baitan, bideo lehiaketa berezi eta berritzailea antolatu du: Euskalaklip lehiaketa. Ondorengoak dira lehiaketan parte hartzeko oinarriak.

Bideoak sortzeko baldintzak

- ✓ Bideo-klip formatua (bideo laburrena) erabiltzea.
- ✓ Bideoak eginez 3 minutuko iraupena izatea.
- ✓ Korrika 17ren leloa, 'Maitatu, ikasi, ari... euskalakari', gutxienez behin erabiltzea.

Baldintza teknikoak

- ✓ Bideoaren formatua: MP4 edo AVI.

- ✓ Gehienezko tamaina: 10 giga.
- ✓ Bidaltzerakoan, ZIP formatuan helaraziko da, hau da, konprimituta; eta mezuaren goiburua Euskalaklip izango da.
- ✓ Parte-hartzaileei derrigorrez erabili beharreko 3 segundoko bideo sarrera helaraziko zaie bide guztiak berdin has daitezen.
- ✓ Bideoak Hyperlink 'mailto:korrika17@gmail.com' Korrika17@gmail.com helbidera bidali beharko dira, otsailaren 25a baino lehen. Edozein argibidetarako helbide horretara jo beharko dute parte-hartzaileek.

Sariketa

- ✓ Bozketak on line egingo da. Korrikaren web-gunean emandako botoen bitartez, erabiltzaileek aukeratuko dute irabazlea, martxoaren 4a baino lehen. Erabiltzaileen aukeraketarekin batera, epaimahaia sortuko dute azken hautaketa bat egiteko.
- ✓ Saria Mac gailu bat izango da.

Korrika 17-ren mezua

Euskal Herrian bizi dena euskal herritarra bada eta euskalduna euskaraz dakiena, nola deitu behar diogu euskara maitatu, ikasi eta erabili egiten duenari? Nola, euskaraz bizi denari?

AEK-k eta Korrikak horiei guztiei izena ipini nahi diete Korrika 17rekin: euskara maite duena, ikasten eta erabiltzen duena; Euskalakaria da:

- ✓ Euskalakaria da lehenengo hitza euskaraz egiten duen dendaria.
- ✓ Euskaraz sortzen duen artista.
- ✓ Euskaraz diharduen lantegiko enpresaria.
- ✓ Euskara sustatzen duen herritarra.
- ✓ Euskararen aldeko neurriak hartzen dituen herri-ordezkarria.
- ✓ Euskaraz lan egiten duen kazetaria, kirolaria, iturgina...
- ✓ Euskalakaria da hitz egin ez baina ulertzen duenari euskaraz egiten diona.
- ✓ Euskalakaria da ikasten ari dena, eta ikasten ari denarekin mintzo dena.
- ✓ Euskalakaria da haurrari dakien beste euskara egiten dion gurasoa.

- ✓ Euskalakaria alaia da.
- ✓ Euskalakaria baikorra eta ekintzailea da.
- ✓ Euskalakaria bizizalea da.
- ✓ Euskalakaria naiz ni.
- ✓ Euskalakaria haiz hi Euskalakaria da bera.
- ✓ Euskalakariak gu gara.
- ✓ Euskalakaria zara zu.
- ✓ Euskalakariak zuek zarete.
- ✓ Euskalakariak haiek dira.

Korrika egiteko, grina eduki, oinez jakin eta abiatu egin behar du. Erortzeko beldurrik gabe. Euskaraz egiteko, maitatu, ikasi eta aritu egin behar da. Hanka sartzeko beldurrik gabe.

Tipi-tapa, tipi-tapa... Euskal Herria euskaldunstzeko herritar bakoitzaren egitekoa, garrantzia eta protagonismoa aldarrikatu nahi ditugu.

Tipi-tapa, tipi-tapa... Bakoitzaren abiapuntua zeinahi dela ere, herritar guztiak euskalakari izango diren Euskal Herria da Korrikaren azken helmuga. Euskal Herri euskalduna da AEKren azken helburua.

Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!

Euskal Herrian bizi dena euskal herritarra bada eta euskalduna euskaraz dakiena, nola deitu behar diogu euskara maitatu, ikasi eta erabili egiten duenari? Nola, euskaraz bizi denari?

AEK k eta Korrikak horiei guztiei izena ipini nahi diete Korrika 17rekin: euskara maite duena, ikasten eta erabiltzen duena; Euskalakaria da.



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA


HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



MUJICA LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Asier Mendizabal artista garaikidea

“Arteak deskontestualizazio ariketa egiten du, gauzak bere tokitik atera eta berri bezala ikusi”

Nahi duena eginez bizi dela dio 37 urteko artista ordiziarrek; 2008az geroztik bere sorkuntza lanak egin eta erakustetik bizi baita. Bitarte honetan Bartzelonan eta Lisboan

bakarkako bi erakusketa egin ditu eta otsailaren 8tik aurrera Madrilgo Reina Sofia museo entzutetsuan izango dira bere lanak ikusgai.

Bitartean Radio Nacionalek ematen duen ‘Ojo Critico’ saria ere irabazi du. 1996an Arte Ederrak amaitu zuenetik munduko hainbat tokitan ikasketak egin eta hainbat talde erakusketa garrantzitsuetan ere parte hartu du Bilbon finkatu den ordiziarrek.



Elkarrizketa hasi aurretik, esan duzu, nahi duzuna egitea lortu duzula, baina nahi duzunean egitea ez.

Halaxe da. Bakar-bakarrik, nahi dudana egitea lortu du. Ez dakit betirako izango den baina momentu honetan, bakar-bakarrik, nahi dudana egiten dut. Azken bizpahiru urteetan honetarik bakarrik bizi naiz. Gauzak ez daude erraz, baina oraingoz oso ondo doaz. Txarrena noiz egin aukeratu ezina da, alegia, nahi dudanean egitea.

Otsailaren 8an Madrilgo Reina Sofian, erakusketa irekiko duzu. Beraiek gonbidatu zaituzte, zuk egiten diezu eskaera... nola izaten da hori?

Horregatik esaten dut, ezin dudala aukeratu noiz, ezin dudala non aukeratu, beti besteen nahien inguruan gabiltza dantzan.

Artearen mundua oso fragmentarioa da, barruan mundu asko daude. Baina badaude halako legitimitatea eratzeko edo balioa finkatzeko aparatuak: kritika, museoak, komisarioak... Horrek zuzentzen du, noren lanak egingo duen aurrera. Askotan konplexua da makina horrek nola funtzionatzen duen jakitea. Baina nik uste dut ez dela artearen arloko makina bat bakarrik, arlo guztiek daukate beraien ebaluazio sistema eta guztiek daukate balioa finkatzeko metodoa. Beti badago aurretik, halako instantzia balidatzaile baten azken hitza. Alegia, museo batek beti gonbidatu egingo zaitu, inoiz ezin zara museo batera joan zure lana eskaintzera.

Beraz, artistak, bere ibilbidea egin ahala, iristen dira erakusketak, sariak...

Ondo azaltzeko, oihartzun publikoa gestionatzea epe kontu bat da noski. Epe batean egindako lanak bakarrik dauka horrelako koherentzia bat, era organiko batean ikusiko dena. Insistentzia

nahiko egoskorra behar da segurasko. Baina koherentzia hori ikusten edo ulertzen denean edo ulergarria egiten denean bakarrik iristen da besteen desira. Horregatik ez da hain zuzena, pentsatzea, artearen lanbide honetan karrera moduko bat egin behar dela. Mugarrien segida bat bezala dela pentsatzea, akats bat da. Artistaren ibilbide profesionala alderantzizkoa da. Nolabaiteko koherentziaz egindako lan baten ondorioa da profesionalizazioa, nolabaiteko errekonozimenduetara heltzeko abantaila txiki bat. Baina horra iristeko aurretik konpromiso bat hartu eta onean naiz txarrean, temati aritu behar da. Gainontzekoa, ondorio moduan dator. Askotan, alderantziz pentsatzen da: artista batek bilatu behar duela horrelako toki profesional bat. Artistak bilatu behar duena da, artista den heinean, bere tokia. Eta hori mantentzearen konsekuentzia bezala lortuko du nolabaiteko profesionalizazioa edo bere lanaren sistematizazioa. Besterik ez bada, lana egiteko denbora behar delako eta denbora nonbaitetik atera behar. Eta lanetik bertatik ateratzen duzunean bakarrik daukazu berme hori.

Bartzelonan, Macban egin zenuen bakarkako lehenengo erakusketa.

Museoko atzera begirako moduan bai. Gainera nahiko gauza berezia izan zen. Nire lanak orduan ez zeukan, Macba batean horrelako bakarkako erakusketa bat izateko garantia nahikorik. Horrelako lan bat egiteko gazte nintzen (2008an izan zen) eta niretzat garrantzitsua izan zen. Hor hasi zen dena, hortik aurrera, dena batera etorri da. Bisibilate kontua da: gero eta ageriago egon, gero eta aukera gehiago. Eta horixe da beti gertatzen dena. Lanean ibili zaitezke, ni ibili naizen moduan, 10-12 urte, nahiko gelda, beste lantxoak hartzen lana bera ordaintzeko, eta bat-batean baldintzak aldatzen dira. Lanak hartzen du horrela-

ko korpus bat eta norbaitek edo norbaitzuk ulertzen hasten dira korpus hori eta bat-batean, prezipitatu dira gauzak. Lehen esan dudarenaren konsekuentzia da hori.

Koherentzia hori lortu duzu beraz.

Lan osoa, gorputz bat bezala ulertzeko gaitasuna dagoenean, orduan epaitu dezakezu lan bat. Hori ez badago, zailagoa da.

Nondik jaso dituzu erreferentziak?

Artearen irakaskuntza, oso problematikoa da, jaio ala egin egiten da? Artistaren irudi bat badago, ikasi beharrik ez daukala, badaukalako halako zerbait. Hori noski, txatxukeria bat da. Baina bestetik ere egia da, nolabaiteko eduki kurrikular batek ez duela artearen diferentzia hori ematen. Ezta ere, ez du bermatzen konpetentea izango zarenik. Bien arteko zera bat dago. Zergatik? Artistak zerbait komunikatzen badu, bere subjektibitatearen filtrok pasatuta da, halabeharrez. Eta hori ez dago inongo eduki kurrikularretan. Hori ezin da utzi, hori ezin da eskutik eskura pasa. Egiten dena da, nolabaiteko irakurketa edo hausnarketa egiteko, erremintak eman. Hori bai.

Ez dut uste nire prozesu akademikoak, Bilboko fakultatean, bereziki ona izan zenik. Baina, prozesu hori gabe ez nintzen naizena izango. Lehenengo, edozein lanbidetan bezala, nahi duzunaren ereduak behar dira, batzutan ukatzeko bada ere.

Dena den, ikasketa akademiko arautuak baino interesgarriagoak dira gerora egindakoak, murriztuagoak direlako. Londresen egin nuen, postgrado moduko bat, bi urtekoa. Handik Artelekura itzuli nintzen. Gure belaunaldiarentzat oso garrantzitsua izan zen tailerra egin zen. Handik Holandara joan nintzen, Turkian ere beste hiru hilabeteko beka bat izan nuen. Eta taldeak, egoerak, gero eta zehatzagoak ziren. Bilatzen duguna gero eta zehatzagoa da, gero eta gehiago dakigu, gero eta gehiago kendu dugu bidetik...

Artistaren formazioan asko laguntzen duten teknikak, erresistentzia bekak dira. 3-6-9 hilabeteen, beste toki batera zoaz, beste 3-5 artistekin. Beka txiki batekin. Oso bide malgua bilakatu da, lanak jorratzeko, proiektu bereziak egiteko. Bertan, zure bizitza beste artistekin partekatzea da interesgarriena. Antzeko interesen inguruan lanean dabilen jendearen artean, errazagoa da azken batean, inportanteena dena aurkitzea: konplizeak bilatzea. Oraindik orain, arterako konplize garrantzitsuenak, fakultate garaian ezagutu nituenak izan dira eta Artelekuko garaian ezagututakoak ere bai. Finkoenak beraiek dira oraindik ere. Horretarako balio du, egoera arautu batean egoteak. Gainera, irakasle on bat izateko zortea baldin badaukazu, askoz ere hobe.

Harremanak errazak al dira artisten artean?

Denean bezala, lagunekin oso ondo, etsaiekin oso gaizki. Nire bizitza sozial gehiena, dena ez esatearren, orain, artearen inguruan ematen da. Horrek esan nahi du, artistak elkar ezin ikusi bagenbiltza, lagunik ez nuela izango. Ez da hori kontua. Diferentziak, noski, ateratzen dira, toki guztietan bezala. Gertatzen da, gure subjektibitateak baduela proiektzio publiko bat, lanaren parte delako, nolabait. Askotan nahastu egiten da artisten ideien konfrontazio hori, konfrontazio personal batean. Ez da beti horrela izaten, baina batzutan bai.

Garenaren, garela uste dugunaren eta izan nahi dugunaren arteko harremanaren arteko korapiloa askaezina da. Artetik hori bere konplexutasunean jorratzen dugu.

Reina Sofian erakusketa

Madrilen Reina Sofian duzu bakarkako erakusketa.

Bereziki bertarako prestatu al dituzu lanak?

Bartzelonan atzera begirako bat egin nuen. Azken urteetan egindako lanen bilduma. Atzean urte askotako lana badago egon daiteke horrelako klasifikazio lan bat, lanak hainbeste-ko ibilbiderik ez badu faltsua litzateke horrelako sailkapen lan bat sortzea. Bai aurretik egin dudan Lisboako erakusketan, baita Madrilgo honetan ere, egitura bat sortu dut erakusketarako, ez atzera begiratu eta lanak bildu bakarrik, baizik eta, lanen berreskurapen bat, horrelako berridazketa bat egiteko. Lehen beraien ibilbidea izan zuten lanak, elementuak berrantolatuta, segida edo gramatika ezberdin batekin planteatu dut. Orain Madrilerako bi lan berri egin ditut eta hauen inguruan azken urteetako lan batzuk berreskuratu eta tesuinguru berri batera eraman ditut, konstelazio berri bat sortuz. Hor inistentzi bat ikusten da nire aldetik, lana ixtearen edo atzera uztearen beldurra, berreskuratu eta nahastu behar hori. Ia teknika batean bihurtu dela iruditzen zait.

Taldeakako erakusketak ere egiten dituzu...

Normalean taldekako erakusketa oso erreminta ona da. Askotan interesgarriagoa eta garrantzitsuagoa da, talde erakusketa on batean egotea, bakarkako erdipurdiko bat egitea baino. Normalean taldekako erakusketa hauek, komisarioak antolatzen ditu. Komisarioa da, azken finean, artistaren eta kritikoa- ren erdibidean dagoen figura. Artisten lanak berkontestualizaten ditu eta horrek eraikitzen du diskurtsoa edo kontestu teorikoa. Azken finean, artisten lana interpretatzen laguntzen dute, baina ez kritiko batek bezala idatzita, baizik eta erakusketa bat montatuta. Komisario figura honek, nahiz eta hor egon den beti, nolabaiteko zentralidade bat hartu du artearen kontestu honetan. Arteak gero eta instituzionalizazioa delako. Instituzionalarekin esan nahi dut, estruktura publiko sendoago- tak daudela orain. Horrek egin du, nolabait, artearen ekintza handitzea, edo gutxienez, agerikoagoa egin du. Horretan, komi- sarioaren figura oso garrantzitsua da.

Komisarioek kontestu hori sortzen dute, artista ezberdinen lanekin, gai bat edo belaunaldi bat jorratzeko. Alegia, lanak berak duen baino esparru zabalago bat emateko. Komisarioa ona baldin bada, beste artistekiko harremana mantentzen bada, interesgarria den zerbait gertatzen bada, etekinak oso onak izan ahal dira. Azkenaldi honetan ezin naiz kexatu zentzu horretan.

Adibide bat jartzearen, oraintxe, erakusketa kolektibo batean nago Portugalen, Oporton. Bertan egin nahi izan da, artea- ren eta politikaren uztartze zail horren berrikuspen bat, azkene- ko urteetan. 1961. urtetik aurrera jaiotakoan 40 pieza daude. Bakoitzak alde batetik, politikaren errepresentazioaren proble- maren ideiarekin inguruan lan egin dugunaren erakusketa da. Oso trinkoa da, oso konplexua. Baina konturatzen zara, lanak elkarrekin, osatu egiten direla. Lan batek planteatzen dituen problemak, beste batean, itenbide bat ez bada, hipotesi bat aurkeztu du. Hori da taldekako erakusketen sistema. Gai edo kezka baten inguruan, halako narrazio bat osatzea, ez idatziz, lanekin baizik. Artistentzat garrantzitsua da baina baita publiko- arentzat ere. Konplexutasun hori funtzionatzen ikusten du eta eduki bat badagoela ikusten du. Nahiz eta zaila izan.

Erakusketa egin eta kritiken zain egoten al zarete?

Aurkakoa esango banu gezurra esango nuke. Beti nahi dugu kritika ona. Baina ez ulertu gaizki, onak ez du esan nahi gure lana laudatuko duena, baizik eta gure lanarekin harreman zuzen batean inplikatzeko den kritika, eduki bat sortzeko duena.

Eta hori bada erakusketa porrot bat dela esateko, ez dago arazorik. Arazoa dago axaleko kritika bat egin eta autoritate jarre-
ra batetik balorazio bat egiten denean, balio du edo ez du balio esateko. Horrek ez du inongo interesik. Espainian kritika asko horrela egiten da, oso kritika pattalak egiten dira. Horrek ez dakar inongo edukirik, kritiko batengatik espero dudana da, nik jarri dudana konpromiso maila bera jar dezala berak.

Nire lana politikara hurbiltzen da modu eliptiko batean. Hori dela eta, gertatu izan zait kritikoren batek nire lanaren bidez jarrera politikoren batean kokatu nahi izatea, eta aurreiritzi horrekin joan dela erakusketa ikustera. Aurreiritzi hori baieztatzen ez duenean, ez duela ulertu esan du. Baina hori bere erantzukizuna da eta ez nirea. Susmoa dut Madrilen ere horrelako zerbait gertatuko zaidala. Gai konplexua da eta Madrilen inoiz baino era esplizituagoan hitz egingo dut, ez bakarrik ideologiaren formaz, ideologiak nola hartzen duen forma eta forma horrek ideologia nola baldintzatzen duen, hori da nire lanaren "live motive" bat. Madrilen gainera hori egingo dut euskal identitate kolektibo ideal horretatik. Nola sortu den hori artearen, argazkigintzaren... tradizioetik. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

Hor zaila izango da aurreiritzia saihestea.

Hori da arazoa. Baina pentsatu beharko genuke nora eta Reina Sofiara gonbidatu banaute norbaitek saihestu duela aurreiritzi hori eta pentsatzen duela horregatik dela erakusketa interesgarria. Horrek beste zirkulu batzuetan zer harrera duen ikusi beharko dugu orain.

Ezkerreko sinboloak asko erabiltzen dituzu zure lanetan.

Baina ez noa edukietara. Nik ezker iraultzailearen formak erabiltzen baditut, ez da hainbeste tradizio politiko horretaz hausnartzeko, baizik eta tradizio politiko horren eta bere irudikapenaren arteko harremanez ari naizelako. Nire hausnarketetan erabili izan ditut: tradizio politiko horiek, euskal punka, euskal eskultura abstraktua edo mende hasierako abangoardia europarra. Niretzako kasu horietan guztietan, momentu konplexu batean formak eratzen du nolabait formak berak sortu duen ideologia konkretua.

Hori ikusteko punkaren adibidea oso argigarria da. Gazteen artean badago aurrekoarekin apurtzeko gogo bat eta kohesio hori bermatuko duen irudi edo forma baten beharra. Horretarako sortzen duten forma da punka. Baina gero forma horretatik sortzen duen finkatzea du kolektibo hori. Formarik ez duen gazte haserretu batzuen irtenbide izatetik, musika azkararekin, konfrontazioarekin, ile tenteekin, katekorratzekin, militar botekin... forma duen errealitate bat sortzen da. Guzti horrek errealitate bat sortzen du eta formarik ez duen identitate hori determinatzen du, baina orain atzera begira, forma horiek baldintzatuta. Honekin ulertzen da ideologiak forma bat sortzen duela eta gero forma horrek kolektiboaren ideologia determinatzen duela atzera begira.

Identitate kulturalak ere antzeko eran funtzionatzen du. Ezkerreko mugimenduetan, punkean, zenbait identitate nazionaletan, edo arte abangoardiaren politizazioaren inguruan ikusten dut hori argien eta horretatik erabiltzen ditut elementu horiek. Hor uste dut badagoela askatu ezin den korapilo bat, niretzat interesgarria dena, askatu ezin den heinean. Hortik dator konplexutasuna. Garenaren, garela uste dugunaren eta izan nahi dugunaren arteko harremanaren arteko korapilo hori

askaezina da eta artetik hori bere konplexutasunean jorratzen dugu.

Nire lanetan gertuko lanak jorratzen ditut, denok ezagutzen ditugunak. Hor dago nire subjektibotasunera jo beharra. Nire nerabezaroan politikaren, musikaren eta artearen bidegurutze horrek konfiguratu nau. Naizena zergatik naizen jakiteko begiratzen dut atzera.

'Ojo Critico' saria irabazi berri duzu. Hori ere garrantzitsuagoa izango da zuretzat.

Errekonozimenduekin esker onekoa izan behar da, beti dago ondo jasotzea. Baina ni nahiko mesfidatia naiz zenbait sari generikorekin. Ojo Critico saria Radio Nacional-ek emana da eta bertako epaimahaian errespetu handia diodan jendea dago, baina sari hauek ez dute benetako lan zehatzik, errealitate konkreturik saritzen. Adibide bezala urte bukaeran, Portugalgo medio garrantzitsu batek iaz Lisboan egin nuen erakusketa, Portugalen egin zen urteko erakusketarik onena izendatu du. Hori hemen ez da jakin, ez da sari handi bat, baina ilusio handiagoa egin dit lan zehatz baten balorazio konkretu bat delako. Lanaren balorazioak lan gehiago eginarazten du.

Bartzelona, Lisboa, Madril... eta bertan baloratzen al da euskal artisten lana? Hemen Guggenheim eta baditugu...

Errazena ezetz esatea izango litzateke, kanpoan gehiago baloratzen gaituztela, baina ez da egia. Egia da horretarako museoak

orokorrean ez direla adibide onena. Guggenheimek hasieran bertakoari heltzeko konplexu bat izan zuen, internacional edo amerikar izaera hori dela eta. Hamargarren urteurrena zela eta bertako artea esplikatuz bi erakusketa osatu eta zor hori kitatu nahi izan zuen. Bietara gonbidatu ninduten, batean presente egoteari uko egin nion eta bigarrenengan izan nintzen. Han egotearen

kontraesanei artista bezala erantzutea erabaki nuen.

Orain euskal artista belaunaldi indartsu bat gaude eta hori kanpotik ikusten dute. Horren zergatia galdetzen didatenean, nire erantzuna da gurea ez dela Guggenheimek esker, baizik eta Guggenheim izan arren. Euskal herrian izan dira aurrekontu eta arreta txikiarekin la isila egin duten instituzioak. Baina, hainbat agintarik, Guggenheimen distirak seduzituta, uste zuten instituzio txiki horiek ere logika ikusgarri horretan funtzionatu eta etekin horiek eman behar zituela eta azkenean isil arazi edo desagertu arazi egin dituzte. Instituzioen lana da edukiak eta baldintzak sortzeko lan isila egitea.

Hemendik aurrera zein asmo duzu?

Lan askoko urtea dut 2011 hau. Madrilekoaren ondoren taldeko erakusketa pare bat ditut eta udazkenerako. Londreseko instituzio nahiko garrantzitsu baterako bakarkako erakusketa prestatzen ari naiz. Bitarte honetan 'goxoki' bat ere badut, aurreko urte osoa aritu naiz eta oraindik ere horrekin ari naiz: Lisboako erakusketaren inguruan liburu bat argitaratzeko aukera sortu zitzaidan eta badirudi udaberrian kaleratuko dugula. Bertan hiru urtez Gararen Mugalari gehigarrian zutabeak kaleratu nituen, hauetatik gehienak liburu batean bildu eta bakoitza irudi batekin lotu dugu, joko interesgarri bat lortuz. Artikulu horietatik gehienak euskaraz idatzi nituen, baina, liburuan portugesez eta ingelesez argitaratuko ditugu. Momentuz inork ez du interesik erakutsi euskaraz edo gaztelaniaz argitaratzeko eta horrela beharko du. Lan hau niretzat goxoki bat da, nire lana liburu batean bilduta geratzeko oso esker onekoa da.

**Madrilen inoiz baino era
esplizituagoan hitz egingo dut, ez
bakarrik ideologiaren formaz,
ideologiak nola hartzen duen
forma eta forma horrek ideologia
nola baldintzatzen duen,**



Artea 'ulertu' nahian

Arte garaikidera hurbiltzean, ulertu nahian aritzen da ikuslea. Honen inguruan gogoeta luzea egin digu Mendizabalek: "Arte garaikideak badauka halako joera oso nabarmen bat XX. mende hasieratik hona: adierazpen konplexutasuna mantentzearena. Arteak abantailarik baldin badu beste adierazpenekiko, da, hain zuzen, ez duela bere burua azaldu behar tesualki, narratiboki. Ez duela gardena izan behar horretan. Baizik eta, kontrastez egiten du lan, ez zeinuen esanahiekin, baizik zeinuen materialtasunarekin. Horretan datza beste adierazpenekiko daukan ezberdintasuna. Tradizio figuratibon, materialaren nolabaiteko moldaketa batekin, antza edo errepresentazioa bilatzen da. Hori izan da XX. mendera arte, artearen logika.

XX. mendearen esaten da: hemen dagoena beste kontu bat da. Formak esanahiaren gainetik duen gainbalio bati egiten dio begirada eta hori guk egiten dugu. Guk bakarrik ez; poesiak ere egiten du hori. Musikak nolabait ere egiten du. Baina arteak ere egiten du hori. Gertatzen dena da, arteak baduela errepresentazio tradizio hori, musikak edo poesiak halabeharrez, ez daukana. Badirudi badagoela halako traizio bat, transparentzia edo begiradaren erosotasun hori.

Poesia artea bezain konplexua da. Musika, berriz, oraindik konplexuagoa da, ulermena baldin bada bilatzen duguna. Musika ulertzea, oso gauza inprobablea da. Eta ez diogu musikoari edo poetari hori aurpegiaritzen. Arteak, berriz, arlo hori ere defenditu behar du: kontua ez dela ulertzea, kontua dela adierazpen horrekiko nolabaiteko konplizitatea bilatzea eta konplexutasuna barneratzea.

Artea konplexua da baina ez du esan nahi, artea ulertzeko lan handi bat egin behar denik. Artea konplexua da dakienarentzat ere, informatua dagoenarentzat ere. Horrek ez du inor baztertzen. Artearen aurrean jartzeko baldintza bakarra, konplexutasun hori hasieratik onartzea da, era zuzen batean, konplizitatez, lan horrekin harreman bat sortzea. Hori berdin egin dezake dakienak eta ez dakienak, hasieratik begi garbiekin begiratzen badu.

Badaude nire lanean, zenbait gauza, osagai narratibo garbia dutenak. Nire lanaren parte handi bat idaztea da. Pentsa liteke, idazketa behintzat ulertuko dela. Hala ere, saiatzeko naiz, ulertu denaren edo narratzen denaren gainean, ulertu ez den itzal bat izatea, ulertu edo esplikatuko ez dena. Narrazio hori gainditu egingo duena. Arteak beti hori egiten du: deskontestualizazio ariketa bat. Gauzak bere tokitik atera eta berri bezala ikustea.

Badago tradizio kritiko bat abanguardiatatik hona, desnaturalizazioaz hitzegiten duena. Oso kontzeptu sinplea da. Egunero ikusten eta egiten ditugun gauzak, irudiak... era automatiko batean irakurtzen ditugu. Pertzepzioa ohitu gara eta pertzepzio hori erregistratuta dugu, dakigun gauza bat bezala, ez diogu atentzio berezirik eman behar, badakigulako zer den. Arteak egingo lukeena da, hori lehenengo aldiz ikusiko bage-nu bezala aurkeztu. Nolabaiteko automatismo hori, kortozir-kuitatu edo desmontatu, eta egunero ikusten, egiten, esaten edo entzuten duzun gauza bera, bere onetik atera, berriz ere ikusteko, lehenengo aldiz ikusiko zenuen bezala. Horrek hala-beharrez izan behar du konplexua, neurri batean behintzat. Baina, ez du inor baztertzen edo helburua ez da inor baztertzea. Baizik eta denak, berdintasunean, horren aurrean, biluzik edo ezjakin bezala azaltzea".

Joxe Begiristain, Beasaingo CAF Euskararen normalizazio-prozesuaren aduraduna:

“Trenaren fabrikazio-prozesu guztia euskaldundu nahi dugu”



Urte Urte asko dira Beasaingo CAF enpresa, euskararen aldeko trenera igo zela. Urteetako lanaren emaitzak ikusten ari dira. 2010. urtean, ahalegin berezia egin zuten Beasaingo eta Irungo lantegietan gaztelania eta euskararen erabileran parekotasuna bermatzeko Hizkuntza Politika Orokorra, liburuxkan bildu eta 3.000 langileei eskura banatuz. 2006ko apirilean, bertako langile bat, Joxe Begiristain ataundarra, Euskara Arduradun izendatu zuten. 25 lagunek osatzen duten Euskara Batzordea du ondoan Beasainen eta guztiek, euskararen normalizazio-prozesuan aurrera egitea dute erronka.



Urte batzuk badira CAFen, euskararen normalizazio-prozesuan murgilduta zaudetela.

Hala da bai. Hasieran, euskara ikasi nahi zuenari, eskolak ordaintzen zitzaizkion. Gerora, Eusko Jaurlaritzak, enpresetarako euskara plan pilotuak sortu zituen. CAFek bere burua eskaini zuen eta Eusko Jaurlaritzatik esan zitzaion, Beasaingo CAF handiegia zela beraiek pentsatuta zuten planerako. CAF saiatu egin zen eta lortu zen, enpresaren atal batean, IV. Dibisioan (trenen akabera gunean), Euskara Plana martxan jartzea, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin.

IV. Dibisioan izugarrizko ahalegina egin zen, bai jendearen parte-hartzearen aldetik eta baita, inprimaki, dokumentu eta bestelakoak ele bietan izan zitezen edo euskara ikasteko aukera, lantokian bertan eskainiz, adibidez. Baina lantegia bakarra da, paperak batetik bestera joaten ziren, Euskara Planean sartu gabe zeuden tokietara eta alderantziz... Ez zen eraginkorra. Azkenean, poliki-poliki, Euskara Plana zabaltzen hasi ginen gune ezberdinetan: III. Dibisioan, Giza Baliabideetan, Bulego Teknikoan eta abar. Gure artean, gune horietako Komunikazio Zirkuluak sortzen genituen. Azkenean ordea, ikusi genuen lana biderkatzen ari ginela.

Azterketa sakon bat egin zen ordura arte planetan aritutakoen artean elkarriketak eginez eta. 2006ko apirilean lortu genuen gaur gauden lekura iristea. Elhuyarren laguntzaz gain, CAFen bertako Euskara Arduraduna izendatu zen, erabat egin-kizun horretan aritzeko, eta Euskara Batzorde berria sortu zen.

Nortzuk osatzen duzue Euskara Batzordea?

Euskara Batzordean enpresako departamentu guztietako ordezkariak daude. Baita ere ordea, zuzendaritzaren izenean dagoena eta sindikatuetakoa ordezkari bana ere. 25 bat lagun, guztira. Hilero biltzen gara eta bakoitzak bere "etxeko lanak" izaten ditu. Lanaren arabera, azpibatzordeak sortzen ditugu Euskara Batzordetik: Motibazio Kanpaina dela, Galardi aldizkaria dela, hizkuntza eskakizunak direla...

Ni orain erabat honetara ari naiz, baina hau dena aurrera eramatea ezinezkoa litzateke Euskara Batzordeko kideen laguntzarik gabe. Borondatez etortzen dira. Bakoitzak bere lana dauka CAFen (soldatzailea, administraria, ingeniaria...) eta aparteko lan bat eskatzen dio Euskara Batzordeak. Egituran asmatu dugula uste dut.

Hizkuntza Politika Orokorra jasotzen duen liburuxka argitaratu zenuten 2010ean. Zertarako balio du Hizkuntza Politika Orokorrak.

CAFeko Beasaingo eta Irungo lantegietako euskara eta gaztelaniaren arteko erabileraz zehazteko eta arautzeko

balio du. Euskarari dagozkion bultzada eta babesak emanaz, bi hizkuntzen arteko erabilera egokia gauzatzeko.

Bestalde, langileak motibatuzko, sentsibilizatuzko eta erabileraz handitzeko, euskaraz aritzeko ahalmena dugun pertsonen kopurua handitzeko giro eta baldintza egokiak sortu nahi ditugu, langile bakoitzak dituen hizkuntza-aukerak zabaltzeko.

Azken batean, CAFen euskaraz lan egin nahi dugun langileok euskara naturaltasunez eta erraz erabiltzeko aukera errealak izateko.

**Hau dena aurrera eramatea
ezinezkoa litzateke Euskara
Batzordeko kiderik gabe.
Bakoitzak bere lana dauka eta
aparteko lan bat eskatzen dio
Euskara Batzordeak.**



Euskara guneak. Panel berezia du euskarak, euskarari buruzko informazioa jartzeko.

HPOrekin, halako berme bat izango duzue beraz.

Zegoen hutsunea zen, gauzak egiten ari ginela baina jendeak ez zekiela zenbateraino hala behar zuen. Duela 5 urte adostu zen Hizkuntza Politika Orokorraren testu hori hor zegoen, araubidea hor zegoen, norabideak idatzita zeuden... Baina ikusten genuen, oso jende gutxi geneukala horren berri. Orduan, iazko ahalegina izan da, akordio hori eskuliburu bihurtu eta langile guztiei eskura banatzea. Orain arte, norbaitek ez bazekien zertaz ari ginen HPOz ari ginenean, orain guztiek dakite, bakoitzari tokatzen zaion heinean, nola jokatu behar duten euskararen presentziari dagokionez.

HPOa eskuan, zein duzue helburua?

Helburua, elebitasuna da. Euskarak, gaztelaniaz adinako presentzia izatearekin konfartzatzen gara, bai idatziz eta bai ahozkoan. Hori da gure erronka.

Duela urte batzuk, trenaren fabrikazio-prozesuan euskararik ez zen existitzen. Hori hala zela eta hala behar ez zuenaren kontzientzia sortu zenean, euskarari gutxienez zegokion lekua egitea erabaki zen eta azkenik helburuak eta norabideak zehaztu ondoren, lana euskaraz ere egin ahal daitekeela frogatu dugu. Ahalegin horretan ari gara geure aldetik. Badakigu kalean nola dagoen euskara, badakigu gainontzeko enpresen egoera nolakoa den, badakigu euskararen joera orokorra zein den. Baina guk eragin beharko dugu CAFen. Niri beti iruditu zait, nolabait, beti egoeraz negarrez aritu beharrean, berezko eskubidea dugulako gauzak eginda emango zaizkigula zain egoen beharrean, norberak bere inguruan eragin behar duela. CAFen, goazen euskalduntzera trenaren eta bestelako produktuen fabrikazio-prozesu guztia. Hori, CAFekooi dagokigu.

HPOa biltzen duen liburuxkan, helburuez gain,

hizkuntza irizpideak zehaztu dituzue ardazka.

Irudi korporatiboa, barne-harremanak, kanpo-harremanak, informatika eta giza baliabideen kudeaketa hartu ditugu ardatz nagusitzat.

Lan gehien eman diguna, hizkuntza eskakizunak zehaztea izan da. Bi urte eta erdian aritu gara lanean zuzendaritzarekin eta lortu duguna da, euskaraz jakitea, zein lanpostutan den derrigorrezkoa zehaztea, eta non izango den baloratuko dena. Adibidez, Giza Baliabideetarako lanpostu batera norbait etorri behar bada, inork ez du zalantzan jartzen, pertsona horrek euskalduna izan behar duenik. Hori, egia esan, idatzita jarri aurretik ere betetzen ari zen.

Kaleko arazoetariko bat erabilera izaten da. Hemen?

Helburua erabilerak da. Zertarako balio du HPO txukun-txukun idazteak, zertarako balio du Galardi, euskarazko aldizkaria argitaratzeak... erabilera ez bada gauzatzen. Tristeia litzateke, bost urte barru, erabilera ez duela aurrera egiten ikustea.

Aurreko batean, Irungo jubilatut bati elkarrizketa egin genion Galardirako eta hark esaten zigun, beraien garaian, lan bizi guzti-guztia gaztelania hutsezkoa zela. Euskaldunen artean ere ez zutela euskaraz egiten. Hori izugarri aldatu da. Hainbat lan-bilera ere euskaraz egiten dira naturaltasun osoz eta hori duela gutxiara arte, pentsaezina zen. Errazena, paperak ele bieran argitaratzea edo aktak euskaratzea baita (eta hori ere ez da erraza gurea bezalako enpresa handian).

Azkeneko hiru urteotan, urtero egiten ditugu ahozko erabileraren neurketak. Aurtengo azterketaren arabera, adibidez, % 39ak euskaraz hitz egiten du Beasaingo CAFen eta % 61ak, gaztelaniaz.

Ohar-tauletako agirietan ere neurtu dugu euskararen erabi-



lera eta hor aspalditik zaila da gaztelania hutsezko agiririk topatzea; bai enpresaren ohar eta bestelakoetan eta baita sindikatuenetan ere.

Korreo elektronikoan, bileretan eta ere, euskararen presentzia neurtuko dugu. Irunen egin dugu proba.

Urte asko dira euskararen trenera sartu zinetela.

Emaizak ikusten ari zarete beraz.

Gauza asko lortu dira. Adibidez: Bulego Teknikoan egin dut lana aurrez, 25 urtean. Inori ez zitzaion burutik pasatu han plano bat euskaraz egon zitekeenik. Bilboko Metroarekin hasi ginen, planoak ele bietan egiten. Bertako bezeroentzat produktua egiten dugunean -Bilboko Tranbia izan zen hurrena- planoak ele bietan egotea lortu genuen. Gero, aurrerago joan ginen: Gasteizko Tranbia egin genuenean, makinistak, nahi izanez gero, botoi bat sakatzeko hutsarekin agente-mahaiaren informazio guztia euskaraz jasotzeko aukera du. Salto kualitatiboak horiek dira. Orain Eusko Trenentzat tren batzuk egingo ditugu eta euskarazko programa hori eskaini zaio, eta gogo onez hartu du eskaini izana bera. Makinistak, agente-mahaiak ematen dion informazio guztia, euskaraz irakur dezake.

Arazoak ere badira: informatikan programa batzuk ez dute aukerarik ematen euskaraz erabiltzeko, hala nola, diseinurako CATIA edo korreorako Lotus.

Hasieratik Elhuyarrek hasi zineten Euskara Plana aurrera eramaten. Oraindik ere elkarlanean aritzen al zarete?

Bai, 90eko hamarkadan hasi ginen haiekin. Adibidez, Elhuyarrek zuzentzen duen ekintza bat aipatzearren, Talde Naturalak deitzen dieguna da. Oso emaitza onak ematen ditu.

Zer dira Talde Natural horiek?

Motibazio kanpaina

Eguneroko lanez eta eginkizunez gain, Euskararen Egunaren bueltan, abenduaren 3aren inguruan, Motibazio Kanpaina egiten dute CAFen. "2009an hasi ginen. Oso arrakastatsua izan zen. 'Igo euskararen trenera' jarri genuen leloa. 2010ean Maialen Lujanbiok proposatu diguna erabiltzeko dugu aurten: 'Ziri-miri euskara ari zuri-niri'".

Tokian-tokian lanean elkarrekin ari den jende bat hartzen da (beraien oniritziz) eta astean behingo ordu eta erdiko 6 saiotan, euskararen erabilera kontzientea eragin nahi dugu.

Adibidez, soldatzailak diren gune bat hartzen da; euskaraz dakitenak eta ez dakitenak. Batekin eta bestearekin, laneko hizkuntza zein den aztertzearekin hasten gara. Grafikoetan jasotzen da eta helburua da, diagnostikoa egin ondoren, aurrerantzean nola egingo duten ikustea. Euskara erabil dezaten eragitea da helburua. Esperientzia oso positiboak daude. Izugarritzok lan saio eraginkorra da.

CAFen euskararekiko egiten ari zaiten lana azaldu duzue noizbehinka, hitzaldiren baten, orain hemen...

Eredu al da CAF?

Ez da eredu kontua, inondik ere. Lehen esan dut, norberak bere ingurunean eragin behar du; etxean izan, eskolan, kalean ala Interneten, berdin zait. Jendea erakarri egin behar da euskararengana. Badakigu euskararen galbide arriskua saihestea ez dagoela CAFekoon baitan; guk badugu ordea geure berezkoa den hizkuntza biziberritzeko erantzukizunez, egitasmo bat.



*Ostiraletan irekitzen da Gaztelekua, 17:00etatik 20:00etara.
Gabonetan, Aste Santuan eta udan, ekintza bereziak egiten
dituzte. Gabonetan, adibidez, Donostiara joan dira.*

Itsasondoko Gaztelekua eredu

Oztopoz betetako bidearen ondoren,
Itsasondoko Gaztelekua indarra
hartzten ari da. Itsasondoko Udalak eta
herriko gazteek, elkar entzun eta elkar
ulertzeko ahalegina egin ondoren, beste herri
askorentzat eredu bilakatu da Itsasondoko
Gaztelekua.

Itsasondoko Udaleko Haur eta Gazteria politikaren helburu nagusia, "haur, nerabe eta gazteen heziketa prozesua, heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipazio prozesua erraztea da, beti ere hiritartasun aktiboaren konzeptutik abiatuta".

Horren harira, 2008an, 'Itsasondoko haur eta gazteria politikaren ildo estrategikoak' izeneko azterketaren ondorio-etariko bat, Gaztelekua sortzea izan zen. 2009ko ekainean ireki zituen ateak Itsasondoko Gaztelekuak, aurretik, Gaztetxea egon zen lekolean.

Gaztelekua sortzeko bidea ez da erraza izan, baina gaur egun, beste herri batzuentzat eredugarri bihurtu da Itsasondo. Udalak eta gazteek, elkar entzun eta elkar ulertu dute, eta guztiak ere gustura daude emaitzarekin. "Itsasondon, Gaztelekua eraikitzearen prozesua oso luzea izan da. Bidean, zailtasun, oztopo eta arazo ugari sortu dira. Hala ere, denei aurre egiten jakin diegu denen artean eta esan daiteke, gaur egun, Itsasondoko Gaztelekua bere tokia hartzen ari dela herrian eta nerabeen artean eta etorkizun batean indartuko dela, nerabe kopurua handitzen ari baita", dio Ainara Urteaga, Gazteria teknikariak eta Gaztelekuko hezitzaileak.

Rosi Noguera, Udaleko zinegotziak adierazi duenez, "Itsasondon Gaztetxea beti egon da, beti funtzionatu du baina azken urteetan geldi samar zegoen eta 12-13-14-15

urteko gazteak galdu samar zeuden. 18 urtetik gorakoak, Ordizi aldera joaten dira. Garrantzitsua da gazteak herrian gelditzea eta horretarako balibide egokiak jaretzea".

Ainara Urteagak zehaztu duenez, "Gazte Planaren barruan sartu ginen eta horrekin batera, Gaztelekua jarri zen martxan eta hor helburu batzuk finkatu ziren. Kontuan harturik, gazteak Ordiziara joaten zirela, alternatibarik ez zutela herrian... helburu garrantzitsu bat zen gazteak, hemen, herrian gelditzea. Baina ez hemen gelditzea bakarrik, motibazio bat izatea ere bai eta beraiek ere ekintzak egitea. Gazteak ere gizarte eragile bihurtzea".

Hasierako errezeloak

Gazteek dena den, ez zuten oso begiko izan, Gaztetxea Gaztelekua bihurtzea. "Momentu gogorra bizi izan genuen. Bat-batean, bakarrik egotetik, nahi zutena egitetik, ni agertu nintzen programazioekin, eta gure arteko harre-

**Helburu garrantzitsu bat zen
gazteak, hemen, herrian gelditzea.
Baina ez hemen gelditzea
bakarrik, motibazio bat izatea ere
bai eta beraiek ere ekintzak
egitea. Gazteak ere gizarte
eragile bihurtzea**

11-17 urte

11-17 urte bitarteko nerabeentzat gunea da Gaztelekua. Dena den, adin tartearekin malguak dira, laguntaldeak ez puskatzearren.

Adin tarte handi samarra da baina denen gustuak eta interesak asetzen saiatzen dira. "Adin tarteak oso handiak dira. Adin bakoitzetik bat edo bi bakarrik daude eta koadrila berdinean ikusi izan ditugu, 14 eta 18 urtekoak. Koadrilak osatzea zaila da. Dena den, eskolatik ohituta daude, geletan, adin ezberdinetakoak ibili baitira elkarrekin".

Nerabeen nahien zerrenda egin eta makina bat ekintza egin dute dagoeneko: makilaje tailerra, skate tailerra, Txuri Urdinera irteera, dantza ikastaroa...

Adinagatik, Gaztelekua uzteko garaia iristen ari zaien nerabeak badaude. Emantzipatzeko garaia iritsi zaie. Emantzipazio prestatzeko, proiektu berriak sortzeko, proiektua ari dira prestatzen Itsasondon. "Batzuk, 18 urteren bueltan dabilta eta ikusten da horiek laster, Gaztelekutik kanpo geldituko direla. Gipuzkoako 10 Gazteleku izan gara aukeratuak, ezaugarriak betetzen ditugulako. Gazte partehartzaileak nahi zituzten, herrian parte hartzeko gogoak zeukatenak... Irizpide batzuk jarri zituzten eta Zegamarekin batera, gu ere aukeratuak izan gara. Bi formazio saio jasoko ditugu asteburuetan eta herrian inpaktua izango duen proiektu bat aurrera atera behar dute. Orain, pixka bat, definitzen ari gara proiektu hori zein izan ote daitekeen. Ilusionatuta gaude horren inguruan", dio Urteagak.

mana, ez zen oso ona. Udalak hartu zituen erabakien aurka zeuden, nire kontra egiten zuten. Momentu gogorrak izan ziren. Momentu batean kezkatuta egon ginen. Horrelako montaje bat egin eta ikusi genuen, nerabeekin ez genuela asmatu. Maiatza inguruan, nire ordezkorekin eta Foru Aldundiko teknika-riekin topaketak egin zituzten, beraiek nahi zutena entzuteko. Partehartze prozesu horretan ikusi zen, gazteei

gehiago entzun behar geniola. Beraiek esaten ziguten, uste genuela, egiten ari ginena, beraientzako ona zela, baina beraiek ez zuten hala ikusten. Beharbada, beraiei ez genien entzun... Elkar terapia bat egin genuen eta irailean nahiko erritmo onean hasi ginen".

Ainhoa Barandiaran, Jone Iturrioz, Maddi Alberdi eta Ibai Agirrei gazteen esanetan, "Gaztetxea lokal bat zen. Lokal horretan, guk nahi genuena egiten genuen. Gaztelekua jarri zutenean, hezitzaile bat etorri zen. Guk beste zerbait nahi genuen. Gure txokoa izatea nahi genuen. Dena den, gerora ulertu genuen, egokia zela Udalak proposatzen zuena eta onartu egin genuen. Azkenean ohitu egin gara. Ikusi dugu guretzat ona den zerbait dela, eta azkenean onartu egin dugu. Ondoko pasatzen dugu gainera.

"Nik beraien jarrera ere ulertzen nuen, puntu bateraino. Orain arte beraiek egon



“Nerabeak gidatu egin behar dira”

Gaztetxea eta Gaztelekua hitzak aipatu dira behin eta berriz eta bien arteko ezberdintasunak aipatu dizkigu Ainara Urteagak. 11-17 urte arteko nerabeentzako guneak dira. “Gaztelekuan, hezitzaile batekin ekintzak egiten dira. Gaztetxean ez daukate gidatuko duten inor, nahi dutena egiten dute. Bestetik, Gaztelekuan, gazteei formazio minimo bat ematen zaie, ondoren, herrian, ekintzak egiteko. Gazte eragileak sortu nahi ditugu. Egunen batean, berriz ere independenteak izan daitezela, lehen Gaztetxean egiten zituzten gauzak egiteko”.

‘Itsasondoko haur eta gazteria politikaren ildo estrategikoak’ biltzen du nerabeak gidatzearen garrantzia. Gaztelekuak, aisi leku soilak baino gehiago izango nahi du. Honela dio testuak nerabeei buruz: (...)“Gaztaroa luzatu denetik, nerabezaroa ere agertu da berezko garai modura, haurtzaroa eta gaztaroaren artean dagoen etapa da, bere ezaugarri propioak dituelarik; haurrak jadanik ez dira baina oraindik gazteak ere ez. Identitate bila dabiltzanak dira, emantzipatzeko bide luzea egin beharko dutenak. Bestalde, aldaketa garaia da; haurra izatetik gaztea izatera pasa, eta nahiz eta oraindik gaztea ez izan, aldaketa fisikoak, psikologikoak eta mota askotakoak gertatzen dira etapa honetan.

Garapenaren eta heziketaren aldetik, garrantzi handiko garaia da nerabezaroa, bertan identitatea definitzen delako, baloreak integratzen direlako eta sozializazioa bideratzen delako. Gauzak horrela, nerabeak gidatu egin behar dira, heldutasunera bitarteko prozesu horretan lagundu egin behar zaie. Familiatik at askatasunaren bila ateratzen dira nerabeak eta zenbait aspektuekin lehenengo harreman posiblea egiten dute; elikadura, kontsumoa, drogen kontsu-

moa, harreman afektibo-sexualak, komunikazioa, telebista eta teknologi berrien erabilera... Guzti hau, nahiz eta helduen ikuspegitik arrisku bezala ikusi, autonomia eta garapen pertsonalaren aldetik oso aberasgarria da nerabearentzat frogatze momentu hori, gehienbat lagunartean eta aisia ematen dena. Etapa honetan aisia da beren benetako lekua, berdinen arteko harremanak garrantzia handia hartzen dute, nerabeen arteko kohesioa sendotuz eta euren arteko autoidentitatea indartuz.

Bestalde, bai haur eta nerabeetan ere, hezkuntzarekiko ardura eta erantzunkizuna eragile ezberdinena da eta lan osagarri bat burutzeko saiakera ezinbestekoa ikusten da.

Gurasoen hezitzaile funtzioetan hutsune bat detektatu da azkenaldian; eskolak informazioaren transmisioan oinarritu du bere zeregina eta baloreen transmisioan eta autonomia pertsonala garatzen laguntzera ez da iristen. Honela, eskola eta familiatik kanpo gelditzen den esparrua, esparru hezitzaile delako onartu beharra dago eta nolabait, beste eragileen lanaren osagarri izan dadin nahi da. Administrazioaren lan esparrua, beraz, heziketa prozesu horretan laguntzean datza:

- Batetik, nerabeek bizitzako zenbait alorri buruzko informazioa behar dute.

- Bestetik, pasibotasunetik partehartze aktiborako bidea ibili behar dute beren ekimen propioak aurrera eramateko.

- Azkenik, aisia hezitzailearen beharra ikusten da, hau da, beti ere haur eta nerabeen eskariak kontuan harturik, astialdian antolatzen diren eskaintzak helburu hezitzailea izateko beharra: gaztetxoaren oreka pertsonala lantzea, kritikotasuna bultzatzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonalari bide ematea. “



dira hemen, beraien bilerak, beraien ekintzak... egiten zituzten eta bat-batean ni etorri nintzen. Guk uste genuen, Gazteleku berria eginda, gustura egongo zirela. Baina, ez. Dena den, aste batean haserretuagatik ere, hurrengo astean etorri egiten ziren", dio Urteagak. "Irailetik hona, parte hartzeko gogoarekin daude, gustura etortzen dira Gaztelekura", gaineratu du Urteagak.

Udaleko zinegotzia, Rosi Noguera ere pozik dago, esperientzia horretatik, denek ikasi baitute. "Beldur pixka batekin hasi ginen baina ikusten dugu emaitza ona dela. Gazteak ere gustura daude eta gu ere bai. Gazteak herriko eragile izatea nahi dugu, pentsatzen baitugu gazteek asko daukatela emateko eta prestatuta daudela egiteko. Bildu egin behar dira, prestatu egin behar dira".

Herri bizitza hobetzea helburu

Herri biziago baten ari dira lanean Itsasondon. Helburu hori hartuta, Herri Bizitza taldea sortu dute herri eragile ezberdinek. "Gazteek ere badaukate ahotsa", dio Rosi Noguera zinegotziak. "Gazteak, jubilatutak, Guraso Elkartea, Ijitu elkartea, Arbelaitz elkartea... denok elkarrekin herriari bizia ematea nahi dugu. Talde bakoitza bere kontura ibiltzen da eta asmoa da, denok jakitea, talde bakoitza zertan dabilen, gazteek zer nahi duten... eta denok elkarri laguntzea", gaineratu du Noguera.

Haurrak, nerabeeak eta gazteak herriaren bizitza direlako, Itsasondon oso kontutan hartzen dute eremu hau. Haurren zerbitzua edo ludoteka ere bideratzen ari dira. "Ludotekak bere forma eta dinamika edukiko du, baina saiatuko gara haurrek ere herrian parte hartzen. Umetatik ikasten badute herrian parte hartzen, gerora ere parte hartuko dute", dio Ainara Urteagak.

Horixe dio hain zuzen ere, Itsasondoko Udalak, 2008an, 'Itsasondoko haur eta gazteria politikaren ildo estrategikoak' txostenak. Nerabeez herriarekiko loturari eustearen aldeko aldarrikapena egiten du, herriaren geroa gazteak baitira. "Itsasondon, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dituen herri eskola dago bertan. Azpimarratu behar da, ordea, aldamenean eta oso gertu herri handi bat daukala, Ordizia. Horrela, Bigarren Hezkuntzako ikasketak burutzera Ordiziako institutura joaten dira gaztetxo gehienak. Eskola aldaketa honek, ikasleek kanpora atera beharra ekartzen du eta honek gaztetxoek herriarekiko haustura bat izatea ahalbideratzen du.

12 urterekin Ordiziako eskolara joatean, bertako lagunak egiten dituzte. Lehenengo urtean Itsasondoko lagunekin lotura mantentzen jarraitzen dute baina hiru urtera lagun taldeak desagertu egiten dira eta ez da jarraipenik ematen, bizimodu ia guztia Itsasondotik kanpo egiten baitute bai aste egunetan eta aste bukaeran. Honek guztiak nerabe eta gazteek duten herriarekiko atxikimendua eta euren arteko harremana ahultzea dakar. Saiakerak egin arren, ekintza gutxi antolatzen dira gaur egun, zailtasunak egoten dira taldeak osatzeko. Adin tarte bereko gaztetxo gutxi daude eta kinta bereko lagun taldeak osatzeko zailtasunak egoten dira.

Gauzak honela, gaztetxoek herriarekiko lotura galtzen dutenean, herri dinamikan sartu eta parte hartzeko motibazio eza handitu egiten da".

over Urraki
Bidaietan adituak

Urtarrilean %5eko deskontua

India, Maldibak, Turkia, Italia, Argentina, Antartida

2011an bidaiatzeko

Kale Nagusia 42, behe **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA
INFORMATIKA - MEKANOGRFIA
IKASKEA ARAZOAK

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120
685 722 403 - 675 006 462
ikaskide@ikaskide.net



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Ordiziako Gaztetzearen mende laurdena

Urtarrilean hasiko dira ospakizunak



Duela 25 urte sortu zen Ordiziako Gaztetea, eta mende laurdena ospatzeko, urte bete-betea antolatuko du Ordiziako Gazte Asanbladak. Urtarrilean hasiko dituzte ospakizunak. “Urte horietan guztietan, milaka gauza egin eta milaka bihotz pozteko gai garela erakutsi dugu eta erakutsiko dugu”, diote Gazteteako kideek.

Hori bai, gazteek ez ezik, herritar guztiek parte hartzeko deia egin dute Gazteteako kideek, 25 urteotan herritar asko izan baitira Gaztetearen biltoki izan dutenak. “Horregatik eta beste mila arrazoiengatik, ziur gaude ospakizun hau ez dela gurea soilik izango, herriak eta herritarrok ospatuko duguna baizik”.

Ekintzez beteriko hilabeteak izango dira beraz Ordizian. Koadroan duzue urtarrileko egitaraua.

Urtarrilaren 22an Goierriko 45 musika talderen diskoaren aurkezpena

Urtarrilaren 22a egun berezia izango da. Goierriko 45 musika talderen abestiak biltzen dituen diskoa aurkeztuko baita Ordizian. Diskoaren aurkezpena egiteaz gain, Ordiziako taberna ezberdinetan diskoan parte hartu duten hainbat taldek kontzertuak eskainiko dituzte:

- **18:00etatik 20:00etara:**
Herrikon: Other Side eta Herri Guda. **Urdinen:** Silikonay eta Kolapso.
- **20:00etatik 22:00etara:**
Kirkilen: The Last

Strenght eta Burusoil.
Tahurren: Pikunk eta Kalamidaz.
Sugaarren: Milkshake eta Perros del Norte.

- **22:00etan: Gaztetxean:** Laket, Having a Laugh eta Gargantas desgarradas.

Abesti berezia eta lipdupa

Ordiziako Gazte Asanbladakoez azpimarratu nahi izan dutenez, ahalegin berezia egin dute Gaztetxearen urteurreneko abestia sortzeko. Laket taldeko kideek, Pirritx eta Porrotx pailazoez eta Bonbereneako batu-kadarekin batera, 25. urteurreneko abestia sortu dute. Interneten, youtuben ikus eta entzun daiteke.

Abesti honetaz baliatuz, lipdupa grabatu nahi dute otsaila aldean Ordiziako kaleetan.

Urtarrileko egitaraua

Urtarrilak 14, ostirala:

22:00etan: Mus eta Ping-Pong txapelketa. Izen ematea gaztetxean.

Urtarrilak 15, larunbata: Bonba eguan:

Goizean zehar: Txupinazoa eta Trikibertso poteoa.

Eguerdian: Bazkaria, bertsolariek alaiturik.

Eguerdian: Gaztetxeako panpinaren aurkezpina.

22:25ean: Kontzetuak: Deaf Squad eta Steel Knuckles.

Urtarrilak 22, larunbata:

Gaztetxeako abesti bildumaren aurkezpina eguna, Goierriko 45 taldek osatua. Ordiziako taberna ezberdinetan diskoan parte hartu duten taldeen kontzertuak:

18:00etatik 20:00etara: Herriko: Other Side eta Herri Guda. **Urdinen:** Silikonay eta Kolapso.

20:00etatik 22:00etara: Kirkilen: The Last Strenght eta Burusoil. **Tahurren:** Pikunk eta Kalamidaz. **Sugaarren:** Milkshake eta Perros del Norte.

22:00etan: Gaztetxean: Laket, Having a Laugh eta Gargantas desgarradas.

Urtarrilak 27, osteguna:

19:00etan: Zine emanaldi kritikoa eta mahai ingurua, Gaztetxean: 'La flor del desierto' filma. Afrikan zein munduan zehar ematen den emakumeen klitorisaren ablazioaren inguruko historia.



Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 27 euro

HITZA ☐
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea • Beasain

Beasain



Ehunmilak: izen-ematea zabalik

Uztailaren 15ean izango da Ehunmilak lasterketa, Arrastaka Mendi Taldeak antolaturik. Bertan izena emateko epea, irekita dago dagoneko www.ehunmilak.com web gunean. Parte hartzea, mugatu da: 600 lagun. Ehunmilak I. edizioan neutralizatutako partehartzaileek dortsal bana izango dute gordeta urtarilaren 15a arte.

Bi lasterketa izango dira aurtien ere: ehunmilak, 167 kilometrokoa eta Goierri Bi handiak, 82 kilometrokoa.

Arrastaka mendi taldearen irteera Belaguetik Lakartxelara

Arrastaka Mendi Taldeak urtarilaren 22 eta 23rako, Belagua bailaratik Lakartxela mendira irteera antolatu du. Neguan goi mendian ibiltzeko hastapen ikastaroa emango da, Kranpoi eta piolet erabilera ikastaroa. Larunbaten formakuntza egingo litzateke eta igandean Lakartxela (1.982m) mendira igoea. Interesatuta daudenentzat, Iturrioz kaleko Ehunmilak-Arrastaka lokalean egingo da bilera, urtarilaren 18an, 19:30ean. Irteeran parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da mendiko federatu txartela izatea.

Zaldibia

Pilota eta trontza desafioa, urtarilaren 15ean

Almitza sega elkarrekin, pilota, trontza eta bertsolaritza batu-ko dituen jaialdia antolatu du aurtien ere Zaldibian. Urtarilaren 15ean izango da. Iaz bezala Mikel Goñi pilotari oronoztarra gonbidatu dute eta herriko Harri Zumalderen eta Xabier Irastortzaren aurka lehia arituko da. Lau koadro eta erdian jokatu dute. Pilota desafioa girotzeko eta botilero lanak egiteko bi bertsolari izango dituzte lagun: Julio Soto eta Sustrai Colina. Atsedendietan bertsozko aholkuak emango dizkiete. Trontzalarrien erronkarekin osatuko dute jaialdia.

Beasain

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak

Urtarrilak 22, larunbata:

16:00etan: Arriarango Intxaurpe elkartean. Izen-ematea 15:30ean irekiko da. Bikoteko: 20 euro.

Urtarrilak 29, larunbata:

16:00etan: Arrano tabernan. Izen-ematea 15:30ean irekiko da. Bikoteko: 20 euro.

Ormaiztegui

Zumalakarregi museoko ekintzak

Larunbat arratsaldetan, haurrentzat eta gurasoentzat tailerak antolatzen ditu Zumalakarregi museoak. Hauek dira urtarileko ekintzak: urtarilaren 15ean, txerri bodei buruzkoa izango da; urtarilaren 22an antzerkia ikusteko aukera izango da eta urtarilaren 29an gailera ekologikoak egingo dituzte. Saio guztiak doan izango dira. Parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman behar dute Zumalakarregi museon bertan.

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida

620 32 62 92

943 18 03 72

aiakoerrota@terra.es

ATAUN



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak

Go

Goierritarra aldizkaria

Egin harpidedun

902-82 02 01

Asteegunetan 08:30-20:30

Larunbatetan: 09:00-13:00

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea
Beasain

Beasain Ordizia

Antzerki garaia

Beasaingo eta Ordiziako udalek, elkarlanean, Antzerki Garaia antolatzen dute. Urtea hastearekin batera, hasiko dira saioak. Sarrerak, antzokietako leihatiletan eros daitezke eta Beasainen, Serbikutxan ere bai. Denboraldi osorako abo-nuak eros daitezke, 60 euroren truke, leihatiletan bertan edo Beasaingo Udaleko Kultura Sailan eta Ordiziako Barrenan.

Urtarrilak 14, ostirala:

22:15ean: Gaitzerdi Produkzioak-en 'Eurria esan eta eurria erortzea', Beasaingo Usurbe Antzokian. Zuzendaria: Borja Ruiz. Aktoreak: Juana Lor, Iosu Florentino, Ane Pikaza, Joseba Uribarri, Karol Benito, Oskar Garcia, Sara Gonzalez, Maria Goirizelaia eta Yolanda Bustillo. Sarrera: 10 euro.

Urtarrilak 21, ostirala:

22:15ean: The Graffiti Classicsem '16 cuerdas con mucho ritmo', Ordiziako Herri Antzokian. Interpretatzaileak: ahotsa eta biolina, Frances Grime eta Alice Pratley; ahotsa eta biola, Stephen Kennedy; ahotsa eta kontrabaxua, Cathal O'duill. Sarrera: 10 euro.

Goierrri

AEKren urtarrileko ekintzak

Urtarrilak 17, astelehena:

18:00etan: Ordiziako euskaltegian, Amaia Iztueta estetizistaren saioa: 'Aurpegia nola zaindu'.

Urtarrilak 25, asteartea:

15:00etan: Ordiziako euskaltegian, Ana Talavera ikasle ohia- ren saioa: 'Eskuak eta azazkalak nola zaindu'.

Idiazabal

Jon Maiaren

'Apaizac obeto' dokumentala

Urtarrilaren 18an, iluntzeko 7etan, Udaletxeko Areto Nagusian, Joan Maiak 'Apaizac obeto' dokumentala aurkez- tuko du. "Zer garen ulertzeko ezinbestekoa ez ezik, itsasoa kultura eta memoria putzu sakona" dela aldarrikatu nahi du dokumentalak.

Beasain

Urtarrileko ekintzak

Urtarrilak 14, ostirala:

22:15ean: Antzerki Garaia: 'Eurria esan eta eurria erortzea'. Usurbe Antzokian.

Urtarrilak 21, ostirala:

09:30ean: Haur zinea eskolaumeentzat: 'Pepper'. Usurbe Antzokian.

Urtarrilak 22, larunbata:

17:00etan: Haur antzerkia: 'Aitona Matias', Usurbe Antzokian.

Urtarrilak 28, ostirala:

22:15ean: Antzerki amateurra: 'Cianuro sólo o con leche', Usurbe Antzokian.

Erakusketak

Urtarrilaren 16ra arte:

'Jazpana! Fest 2010. Argazki Rallya eta gehiago...' erakuske- ta, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Urtarrilaren 21etik 30era:

Jose Manuel Bereziartuaren artelanen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Beasain

Garingo jaiak

Urtarrilak 22, larunbata:

13:00etan: Kanpai-bueltak eta etxafuegoak.

14:00etan: Herri bazkaria, Muñogain auzo-elkartean.

Ondoren: Mus txapelketa (8 bikotek hartuko dute parte eta bazkal garaian egingo da izen ematea).

18:00etan: Haur jolasak, auzoko pelotalekuan.

Ondoren: Sari banaketa eta txokolate-jana.

Arratsalde-iluntzean: Josu eta Aiora trikitilariak alaituko digu- te ilunabarra.

Urtarrilak 23, igandea:

10:30ean: Goiz-eresia Beasaingo Udal Txistulariekin.

11:00etan: Meza nagusia. Beasaingo San Martingo Abesbatzak eta herritarrek, Misa de Angelis abestuko dute.

Ondoren: Kanpai-jotze saioa egingo dute Areantzako Kanpaijole Eskolako kideek.

12:30ean: Zumarragako Sagaspe eta Urretxuko Ipiñarrietako idi-pareek indar erakustaldia egingo dute eliza aurreko pla- zan.

Eguerdietean: Matxinbentako Matxin saskigilea jendaurrean arituko da.

Eguerdian: Beasaingo Udal Txistulariek joko dute.



Beasaingo La Salleko ikasleak 1966. urtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Maiora, Agirre, Rodriguez, Lasa, Imaz, Rubio, Gomez, Yañez, Illera eta Apalategi.

Bigarren ilaran: Garcia, Aseginolaza, Sarriegi, Lizarazu, Agirre, Zaldúa, Goitia, Azalza, Iruretagoiena, Paredes, Ugartemendia eta Oiarbide.

Hirugarren ilaran: Barbadillo, Arregi, Baez, Etxeberria, Azkona, Mingo, Imaz, Briz, Lizarazu eta Alcalde.

Lurrean eserita: Urdanpilleta, Saavedra, Grijalbo, Eskisabel, Santos, Rosado, Irigoras, Nestar eta Paredes.


ZUBARA
 Ereikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
 Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
 ABALTZISKETA

PSIKOLOGI KLINIKOA

 Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
 umeen,
 bikoteen eta
 sexologi
 tratamenduak

Mutiloa Lantzen, S.A.
 Etxebizitzak salgai
 Mutiloako plazan



Prezioa: 180.000tik gora Informazioa: **661 124 724**

Kol. zkia.: 764


Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia Artikulazio eta ahoko minak
 Implantologia Radiologia digital zerbitzua
 Periodontzia Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

ARETO
NAGUSIAN
*Etorri aurretik
izena eman!*

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA URTARRILAK 27 osteguna, 17:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA URTARRILAK 27 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

DONOSTIA URTARRILAK 29 larunbata, 10:30

Miramongo Parke Teknologikoko eraikin nagusia



berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea



KONTSULTAK:
NATUROPATA
AKUNPUNTOREA
DIETISTA

Nafarroa etorbidea, 5
Tel.: 943 16 21 10
BEASAIN

